

Asisko gutuna

2012ko urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

48. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetan Asisko gutunak laugarren printzipioaren inguruan nahi digu gogoeta eta otoitza eginarazi: "Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi".

Printzipio hau kontuan hartzera gonbidatzen zaituztegu, eguneroko bizitzan geure ingurukoekin

nola bizi dezakegun adi ibil gaitzen.

Printzipio hau modu hauetan bizi dezakegu: hileroko otoitzean esku hartuz, eta/edo gogoan hartuz kide garela sare batean, non pertsona askorekin axola handiko zerbait partekatzen dugun.

Gogoetarako gaia

Huts egiteak zuzentzea

Eguneroko borrokan duintasunez bizi nahi dugu, eta senidetasunaren printzipioak bihotza betetzen digu. Ahaleginak egiten ditugu gure bizitzak zentzua izan dezan, gure urratsak neutroak izan ez daitezen, aitzitik mundua hobe egiteko izan daitezen. Baina gure onak izateko, maitatzeko eta besteak errespetatzeko ahaleginak hor egonda ere, behin eta berriz agertzen dira gure mugak: besteak maitatu nahiz, besteen duintasuna mintzen dugu nahi baino gehiagotan.

Sarritan iraintzen dugu norbait, eta horrez gain errugabe garen ustez gelditzen gara, edo aitzakiak asmatzen ditugu lasai gelditzeko. Deabruak ateratzen zaizkigunean, baditugu arrazoiak geure burua zuritzeko: geu izan gara lehenik irainduak ... eta hor gabiltza errudun ez izateko ahaleginetan.

Gizakiari huts egitea dagokio, eta batzuek eta besteek huts egiten dugu gure harremanetan. Baina badaukagu erremedio bat hori arintzeko, eta are

egindako irainak sendatzeko: huts egiteak zuzentzea. Behin eta berriz huts egiten dugu, baina aurrera jarraitu eta zauriak sendatu ahal izateko, zuzen ditzakegu geure okerrak.

Honela dio Konfuzioren esan zaharrak: "Kaltea ez dago huts egiteak edukitzean, zuzentzen ez saiatzean baizik". Egin dugun irainari eusteak urrutiratu egiten du bestea, eta urrutiratze hori haustura bihurtzen du, sufrimena eta bidegabea handiagoa eginez.

Geure huts egiteak zuzentzen saiatzeak bide ematen dio harremanak gordetzeari, bidegabeak gaintzeari, laidoak sendatu ahal izateari... Geure burua aldatzeko bidean jartzen gaitu.

Pertsona bakoitzaren giza duintasunarekiko, eta inguratzen gaituen guztiarekiko, senide begirada gogorkeriarik gabeak gure aldetik huts egiteak zuzentzeko gogo egiazkoa eta etengabea behar du. Ebanjelioa hurbiletik bizitzeko, okerrak zuzentzea da lanabes nagusi bat.

Ebanjelioko pasartea: Mt 21, 28-32

Jesusek esan zien: «Ea zer iruditzen zaizuen. Gizon batek bi seme zituen. Batarengana joan eta esan zion: "Seme, hoa gaur mahastira lanera". Hark erantzun zion: "Ez dut nahi"; baina handik berehala damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan zen aita eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: "Banoa, jauna"; baina ez zen joan. Zuen ustez, bietatik zeinek egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Jesusek esan zien: «Benetan diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, ordea, sinetsi zioten. Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi».

Frantziskotar espiritualtasuna

“Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak (MiG 11). Frantziskok badaki pertsonok bekatu egiten dugula eta behin eta mila bider erratzen; horregatik gonbidatzen du huts egiteak zuzentzera: ez soilik geure bekatu eta huts egiteak onartu eta aitortzera, baizik baita gogo onez ordaina betetzera ere (ik. Ahol 22-23).

Baina ez dugu beti gaizki egina ongi aitortzen eta haren ordaina ongi betetzen ere. Zuzenketa batzuk perfekzionismotik, gehiegizko errudun sentimendutik, norberaren irudiaz arduratuta egotetik ... datoz.

Frantziskok bereizkuntza-irizpide onak ematen dizkigu, zuzenketak egian bizi ditugun jakiteko. Geure nahiz bestearen huts egitearen aurrean haserre, asaldatzea, suminaldia, ulertze-falta, jarrera gogorra sortzen bazaigu, horrek esan nahi du ez dugula ez huts egitea eta ez zuzenketa ebanjelioaren arabera bizi (ik 1 Er 5,7-8). Horren orde, geure nahiz bestearen huts egitearen aurrean, sortzen bazaigu Jainkoaren errukiari begiratzea, bestea Jaunarengana erakartzea, edo gu geu Jaunaren bihotz onera gehixeago hurbiltzea, horrek adierazten du Erreinuaren Berri Onetik ari garela argiz betetzen huts egite hori.

Otoitza

Emadazu, Jauna, neure huts egiteak aitortzeko grazia, neure nahia kosta ala kosta, besteen iritzi eta desirak kontuan hartu gabe, ez ezarri nahi izateko grazia.

Emadazu gaitasuna neure burua kritikatu ahal izateko, jakituria, senideei kalte egiten ari naizela ezagutzeko egin dudan iraina zuzitzeko arrazoi faltsuen bila ibili beharrik gabe.

Soilik oinarri honen gainean alda dezaket neure portaera eta harremanetan harmonia berreskuratu. Emadazu, Jauna, bihotzez barkatzeko grazia.

Hori egiteak on gehiago dakar muturka ibiltzeak baino, urruntzea eta aldentzea dakarten jarrera itxiek baino.

Ireki, Jauna, espazio hutsak nigan, zuk eta nire senideek bete ditzaten.

Horrela nire bihotza, urratsez urrats, xaloagoa egingo da, ulermen eta pazientzia handiagokoa.

Eta horrela ikasiko dut zuk bezala pentsatzen, zuk bezala sentitzen, zuk bezala jokatzeko, eta jakinez joaten, senidea, ni bezala, Aitak maite duen seme-alaba maitea dela.

Gutuneko azken hitzak

“Huts egiteak zuzendu ezean, eman daiteke jakinduriarik altuena heldutasun-faltarik sakonenarekin batera”.

2012ko azaroko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5,1-12 ^a	7 Lk 14,25-33	13 Lk 17,7-10	19 Lk 18,35-43	25 Jn 18,33b-37
2 Lk 24,13-35	8 Lk 15,1-10	14 Lk 17,11-19	20 Lk 19,1-10	26 Lk 21,1-4
3 Lk 14,1,7-11	9 Jn 2,13-22	15 Lk 17,20-25	21 Lk 19,11-28	27 Lk 21,5-11
4 Mk 12,28b-34	10 Lk 16,9-15	16 Lk 17,26-37	22 Lk 19,41-44	28 Lk 21,12-19
5 Lk 14,12-14	11 Mk 12,38-44	17 Lk 18,1-8	23 Lk 19,45-48	29 Lk 21,20-28
6 Lk 14,15-24	12 Lk 17,1-6	18 Mk 13,24-32	24 Lk 20,27-40	30 Mt 4,18-22

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

48. zenbakia

Senidetasuna, anai-arreben elkartasuna, bizitzeko, axola handikoa dugu geure hutsegiteak zuzentzen ikastea. Hil honetako gogoetak laguntza emango digu, geure burua bi gauza hauetaz kontziente egiten: gai hau nola bizi dugun, eta nola bizi dezakegun Ebanjeliotik eta otoitzetik.

Hutsegiteak zuzentzea

Hasteko, kontuan hartuko dugu, mundua hobetu nahian gabiltzala. Bai, hori nahi dugu: gustatuko litzaiguke senide gisa bizitzea, geure burua doan, geurekoikeria eta harrokeriarik gabe, maitatuz aurkitzeko gauza izatea, baina beti geure mugekin egiten dugu estropezu.

Zeintzuk dira zeure bizitzan aurkitzen dituzun mugak? Zerk lotzen zaitu eta ez dizu uzten, mundu anaikorrago hori eginez joateko urratsak ematen?

Agian gauza pertsonalak dira, nekea, ilusio-falta, nagusikeria, perfekzionismoa... Eta agian gauza sozialak; parte gaituen gizarte batean bizi gara eta erantzukizundun gara.

Nortzuei uste duzu ari zarela huts egiten une honetan? Zer uste duzu egin dezakezula haiekiko jarrera zuzentzeko? Zergatik ematen dizu horrek hainbeste lan?

Eta norbaitek zuri huts egiten dizunean? Zer sentitzen duzu? Nola erreakzionatzen? Pentsatzen duzu inoiz denok huts egiten dugula, ez dagoela inor perfekturik? Begiratzen diezu besteen hutsegiteei ikuspuntu horretatik?

Hil honetan zehar honetan saiatuko gara: egiten dizkiguten laidoak edo egiten ditugun hutsegiteak Jesusen begiradaz ikusten. Zer doa aldatuz zure bizitzan?

Okerrak zuzentze apalak anaikorragoak eta senideagoak izatera garamatza, eta besteengana bihotza irekirik bizitzera.

Bietatik zeinek egin zuen aitaren nahia?

Gogoeta eta otoitza egiteko eskaintzen zaigun testuan, ipilatuta ikusten dugu geure burua geure bizitzako hainbat momentutan.

Zenbat aldiz jokatzen dugu bi modu horietan? Bietatik zein da nire bizitzan gehien ematen dena? Eta nola erreakzionatzen dut bi jokabide horien aurrean, “ezetz esanda banoanean, edo baietz esanda ez noanean”?

Jainkoaren Erreinuan Jesusek lehentasunak aipatzen ditu. Nortzuk daukate lehentasuna? Testuak dioenez,

damutzen direnek eta sinesten dutenek. Horiek dira Jainkoaren nahia egiten dutenak.

Zer esan nahi du nire bizitzan Jainkoaren nahia egiteak?

Otoitz egingo dugu testuaren bidez, eta Jainkoari eskatuko diogu, egin gaitzala bere nahiaren esaneko, irakats diezagula geure hutsegiteak ezagutzen gero bere eskuetan uzteko eta horrela damutu ahal izateko eta sinesteko.

“Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago...”

Frantzisko doneak ederki aurkitu zuen nolako bakea datorren hutsegiteak aitortzetik eta berorien ordaina ematetik. Zergatik ematen digu horrek guri hainbeste lan?

Ahaleginak egingo ditugu berarengandik ikasten, eta zaurituta sentiarazi gaituzten pertsonak eta gertaerak Jaunaren aurrean jartzen. Horrez gain geure errore eta hutsegiteak aitortuko ditugu, gero ordaina betetzen pausoren bat emateko. Baina ez nolana. Frantziskok proposaturiko bereizkuntza-irizpidea erabiliko dugu. Zer mugitzen da ene baitan? Bakea sentitzen dut? Neure eta besteen hutsegiteak errukiz begiratuz nabil?

Eska dezagun argia Erreinuaren Berri Onaren aurkikuntza egiteko, geure bihotza aldatzen utziz.

“Emadazu, Jauna, neure huts egiteak aitortzeko grazia”

Egizu otoitz testuaren bidez eta eskatu apalki zeure hutsegiteen barkamena. Zeure besteekiko eta zeurekiko begirada pixkanaka aldatuz doala sentituko duzu, gero eta antz gehiago izango duelarik Jainkoaren begirada amultsuarekin.